

Narrazio motzak irakaskuntza komunikatiboan: ikasaio-eskema

Stephen Arnold McNulty/

Alison Sykes McNulty

Lehen (Zutabe 29) beste artikuluko batean zirriborratutako ideia batzuk argitzea da artikuluko honen xedea, horretarako narrazio motz batez baliatuz (.0) (Pitzadura bat elur izoztuan). Artikuluaren egitura ikasaio-eskemarena izango da eta irakasleari argibide zehatzak emango zaizkio saioko une bakoitzean egin beharrekoak bu-
ruz.*

Hiru aldi

Hiru alditan moldatu da ikasaio-eskema (Istorioaren sarrera, Narrazioaren ustirapena, Istorioaren amaiera bizitzearena), gure lehengo artikuluan emandako antolaketaren pare-parean. Ikasleak aldi bakoitzean egin behar dituen ekintzak azaltzen dira. Gogoan har, dena dela, lehenengo al-
dian ez dugula sartu "pertsonaiaren analisia" deritzon ariketa eta ezin sartu ahal izan dugula hirugarrenean "izan zaitez erdi-autore" ere. Ho-
rren arrazoia, aurreko artikuluan esan genuen bezala, hauke da: ez direla narrazio guztiak ariketa guztiak egiteko modukoak. "Pitzadura bat elur izoztuan" narrazioak ez dituela pertsonaiak "pertsonaiaren analisia" egi-
teko bezain xeheki deskribatzen. Era berean, ez dago istorioaren azken aldean "izan zaitez erdi-autore" ariketa egiteko beharko litzatekeen hain-
bateko elkarrizketarik.

Narrazio hori aukeratzeko arrazoiak beraren ildo narratibo indartsua eta bukaera argia izan dira. Era berean, suspentsea eta arretari eusten dion aurrikustezintasuna ere baditu. Beste zenbait narrazio motzetan ez be-
zala, ez da honetan deskribapenaren muiatz aparte deskribapen gehigarri askorik. Faktore horiek guztiek istorio hori ikasgelan erabiltzeko eta era komunikatiboan baliatzeko modukoa egiten dute.

Ikasaio-eskema

(Ohar garrantzitsua: ikasaioa euskaraz egin behar da.)

Maila: Ertaina, gutxi gorabehera.

Denbora: 1,30-2 ordu gutxi gorabehera.

ZUTABE 30 (1992), 8-14 orr.

Pitzadura bat ehur izoztuan

Philippe Auguste Bloy pitzadura batean erori zelako albiste Lehen Kanpamendura iritxi zenean —arratsaldeko azken orduan, sherpa baten bitartez—, ixiltasun larri bat egin zen espedizioko gizon guztien artean. Mendigoizaleak une hartan edaten ari ziren tea beroaren lurruna hoztuz joan zen, ahazturik ontzietan; eta erabat lizalita ere bazegoen Mathias Reimz —Dhaugalirira igotzeagatik ospetsu egindako ginebrarra, taldeko burua— ixiltasun hura hautsi eta galdera bat egitera erabaki zenerako.

10 'Ezin huen herorrek atera Tamng?' galdetu zion sherpari. Bere hitzak sei mila metroko haizearen intziriarekin nahastu ziren.

Sherpak ezetz egin zuen buruarekin.

'Chitso, Mister Reimz.'

15 Erantzunaren ondorengo ixilunea hasierakoa baino etsiagoa izan zen oraindik. Tamng-en arrazoiak tajuzkoa zen, inork ezin zezakeen dudatan jarri. Hotza, gaez, latzegia zen Lhoise ingurutako haranetan. Zero azpiko berrogei gradutakoa. Edo haundiagoa. Temperatura haiekin, gainera, izotzaren erresuma egonezina jarri eta mugitu egiten zen. Pitzadura berriak sortzen ziren edonon, eta zahar asko, berriz, betirako itxi. Zauritu baten garraioak beste kondizio batzuk eskatzen zituen.

'Zein seinale utzi duk, Tamng?'

345

ausardia, bihotza. Azken agurtzat, Gyalzen zaharrak errezo oihaltu bat astindu zuen aldean, eta *Vishnu* jainkoaren babesa ziurtatu zion hartara.

5 Inork ez zuen egia errezelatu. Inori ere ez zitzaion bururatu erabaki haren oinarrian gorrotoa egon zitekeela.

Philippe Auguste Bloy-ri min egiten zioten hautsita zeukan hankak eta saihetseko urradura sakon batek; baina, halere, mina ez zen nahikoa pitzadura ondoko hotzak eragiten zion loa uxatzeko. Eta horregatik ez zen ohartu, jada azken loaren menara zegoelako, goitik bota eta bere anorak gainera eroritzeko soketaz; ezta, geroxeago, soka haieztatik beragana jaitsi eta aurrean jarri zitzaion gizonaren presentziatz ere. Alabaina, gizonak linterna piztu bat inguratu zion aurpegira, eta Philippe Augustek, garasika ustekabegatik, begiak zabaldu zituen erabat.

15 Itxututa, zerbait esatea, bere bozkarioa adieraztea nahi izan zuen. Baina ahotsak, aurreneko aldi hartan, ez zion obeditu.

20 'Ken egjak linterna hori, Tamng!' esan zuen hurrena, irribarez, eztauriko marrantak ezutluka desegin eta gero. Salbu ikusten zuen bere burua.

'Mathias nauk,' entzun zuen orduan. Hiltz haiek, beren soilean, amenazua adierazten zutela iruditut zitzaien.

25 Linternaren argibidetik kentzeko, Philippe Augustek atzera bota zuen gorputza, ohe batean egon izan balitz bezala. Baina linterna ere aldatu egin zen lekuz, eta aurpegira zuzenean ematen ziola gelditu zen ostera.

'Zeren bila etorri haiz, Mathias?' galdetu zuen azkenean.

30 Ez zion segituan erantzun. Gero urrutit batetik bezala hasi zitzaion, hunkitua zirudien ahots loditua.

'Lagun bezala hitzegingo diat, Phil, bihotzetik bihotzera. Eta, beharbada, barregarriak irudituko zaizkik

Sherpak bizkarra erakutsi zion. Alegia bere nylo-nezko motxila gorria zegoela Philippe Auguste eroritako lekuan. Ilitze batekin ondo ziurtatuta, noski.

'Bizirik gelditu ote da?'

5 'Ez jakin, Mister Reimz.'

Guztiek pentsatzen zuten galderek hurrengo goizean eta eguzkiarekin egin beharko zen salbamendu ekintza zeukatela gogoan; eta hala, harritu egin ziren Mathiasek —linterna eta sokak eskatzearekin batera— kranpoiak 10 jartzeari ekin zionean. Baina, harridura eta guzti, zuten zebiltzan. Segituan ateratzeko asmoa zuen ginebrarrak.

'Lemu mindu,' esan zion, protestako keinuak eginez, sherpa zahar batek. Erabaki hark ez zeukala onik.

15 Ilargiak lagunduko zidak, Gyalzen,' erantzun zion Mathiasek burua zerurantz jasoz. Ilargiari oso gutxi falta baitzitzaion betetzeko. Argitu egiten zuen elur ezarri berria, eta zurbiilago bihurtu.

20 Segidan —adi begiratzen zioten adiskideengana zuzenduz— ez zuela inoren laguntzarik onartuko adierazi zion serio. Bakar bakarrik joango zela. Inori egokitzekotan, berari zegoikiola arriskatzera.

Mathias Reimz eta Philippe Auguste Bloy-k elkarrekin lan egiten zuten Ginebra ingurutako *sté* ibiltokietan, eta espedizioko europearrek zentzu horretan ulertu zuten 25 erabakia, tratabide luze batek sortutako loturen ildotik. Sherpek, berriz, taldeko buru edo erantzule bezala jokatu zuten pentsatu zuten.

Handik gutxira —Mathiasen jantzi laranjatsuen errainua gau eta elur artean ikutatu zenean— murrurio 30 goxo bat osatu zen Lehen Kanpamenduko denda ingurutuan. Jokaera hura miresgarria iruditzen zitzaion guztiei. Mathiasek beste gizon baten bizitza salbatzeko jartzen zuen berea jokoan. Batzuek adiskidantza indarra aipatu zuten, solidaritatea. Besteek mendigoizaleen izpiritua,

346

kontatuko dizkiadan gauzak. Baina hilk ez burlarik egin, Phil. Sufrizten ari den gizon baten aurrean hagoela pentsatu behar duk.

5 Pitzaduraren bakardadea argagotu zuen ixilunea egin zuten bi gizonak. Philippe Auguste erne zegoen. Suge baten abistua aditzen zuen deklarazioaren azpitik.

'Elkar ezagutu genuen, Vera eta biok oso gazteak ginduan, Phil,' segitu zuen Mathiasek —. 'Hamabost urte edo edukiko genizkian, berak hamabost eta nik hamasei,

10 holako zerbait. Eta orduan ez huen neska polit bat. Itxusia ere bazela esango nikek. Luzeegia bere urtetarako, eta hezurtsua, oso hezurtsua. Eta hala eta gutiz ere, ezagutu orduko gustatu zitzaidekan. Gustatu baino gehiago. Egia esan behar badit, barnean zerbait leheru izan balitzait bezala sentitu ninduan, eta nigarrez hasteko gogoia egin zitzaidekan bapatean. Bixia irudituko zaik agian, baina egia duk, nigargurea sentitu nian. Baina nigargure ezta,

15 epela, mundua beste modu batera erakusten zidana. More kolorekoa ikusi nian dena. More kolorekoa zerrua, more kolorekoak mendiak, eta euria ere more kolorekoa. Euria, bereziki. Tanta moreak ikusten nizkian kabletatik zintzilik. Ez zekiat, behar bada enamoramenduak aldatu egiten ziguk begien sentibilitateak. Eta orain ere antzekoa duk. Hamabost urtetako sentipen haiek ez zaizkidak erabat ezetzatu. Ez zitzaizkidakean ezetzatu biok ezkondu ginenean ere, eta badakik zer esaten den, ezkontzarrekin maitasuna bukatu egiten dela. Bada nire kasoa ez. Esango nikek orduan baino gehiago maitatzen dudala orain. Beti Vera gogoan, halaxe bizi nauk ni. Dhaugalirira igo nintzenean ere bere enretatoarekin igo ninduan. Hik badakik zer esaten duten mendigoizale askok, aurrenekoa Mendia dela, eta gero gainerakoak. Baina nik ez diat holakorik uste. Nik neure emaztea jartzen diat gailurra. Orain arte behintzat hala izan duk beti.'

20

25

30

347

348

- Mathiasék amasa hartu zuen, luze. Gero ixilik gelditu zen.
- 'Ez gaituk behin ere oheratu, Math!' egin zuen oihu, bapatean, berriro gorputza altxaz, Philippe Augustek.
- 5 Oihuak oihartzun egin zuen pitzadura barnuko hutsunean.
- Mathiasi zakur ezula zirudien barrexka bat ateratzen zitaizon erantzunarekin batera.
- 'Erota bezala gelditu ninduan jende batek zuen erretratoak erakutsi zizkidanean, Phil. Vera eta hi Muni-
10 cheko Ambassadors hotelean, eskutik hartuta, Martxoaren hamasei eta hamazazpian. Edo Zuricheko Tivolín, apirilaren hamar eta hamaika. Edo Ginebra bertako Trummer apartamenduetan, malatzaren hamabi, hamairu eta hamalauetan. Eta baita Lausanako Villiers lakuan ere, aste
15 oso bat, ekainaren hirutik hamarrera. Ni espedizio hau prestatzen ari nintzen bitartean, hain justu.'
- Philippe Augustek lehortuta zeukan ahoa. Hotzak gogortutako aurpegia mugimendu bortitz batek astindu zion.
- 20 'Garrantzia ematen diek batere ez daukaten gauzei, Math!' argudiatu zuen.
- Baina ez zeukan entzulerik. Lintemaren begi bakarrak gupidarik gabe begiratzen zion.
- 'Duda haundiak eduki dizkiat,' segitu zuen Mathiasék
25 — 'Orain artean ez diat sekula inor hil. Ez nauk hiltzaile bat. Eta gaizki sentitzen ninduan hire heriotza desiratzela nuelako. Katmandun ahalegin bat egitekotan egon ninduan. Eta baita Luklan lurreratu ginenean ere. Eta Lehen Kanpamendua antolatuta genuenean, berdin. Baina, niretzat, leku horiek sakratuak dituk, Phil. Ez nizkian hire odolarekin zikindu nahi. Baina Mendiak entzun egin zidak. Mendiak epaitu egin hau, Phil, eta pitzadura hone-
30 tara bota hau. Ez zekiat bizia kenduko dian ala ez. Behar bada bizirik iritxiko haiz egunsentiraino, eta hala ger-
- tatzera taldeko beste guztien eskuetan jarriko haiz, salbata. Hori ekaitzarik ez bada, jakina. Ez zekiat, Phil, baina iruditzen zaidak elur horietan geldituko haizela betirako. Eta horregatik etorri nauk. Zenbat gorrotatzen hauten esan nahi nian. Nire ustez, hori jakinda joan beharra heuk beste mundura.
- 'Atera nazak hemendik, Math!' Larritasunez, Philippe Augusteri dardarrez hasi zitzaion beheko ezpaina.
- 10 'Ni ez nauk nor, Phil. Esan diadan bezala, Mendiak erabakiko dik.'
- 'Hik uste duk beste guztioi baino hobea goa haizela, Math. Mendigoizaleen eredu, senarren eredu, lagunaren eredu. Baina ez haiz pailazo putzu eta miserable bat baino. Ez badakik ere, ondo ezagutzen hauten guztiek mus-
15 prezioz begiratzen diate!'
- Philippe Augusteren doina ere mespreziantea zen orain. Beranduegi, ordea. Mathias Reinz soketan gora baitzitoan ordurako.
- 20 'Verak nigar egingo dik niregatik. Hiregatik ez likek egingo!' deitu zion.
- Pitzaduraren barrua ilunbetea gelditu zen ostera.
- Indar gabe, amasa hartzea gero eta nekezagoa zitzaiola, Philippe Augustek ahaleginak egiten zituen begi zabalik jarraitzeko. Ordea, behin Mathias joan ezkerre, eta baretuta jada haren bisitak sortutako ondoreza, asmo hura burutu ezina inuditzen zitzaion. Lo hartuko zuen une batetik bestera. Eta huraxe izango zen azkena.
- Iluntasunari begira, Mathiasék erabilitako sokak etorri zitzaizkion gogora.
- 30 'Sokak hemen ahaztu izan balitzaizkio...' pentsatu zuen.
- Eta bapatean, esperantzak hartu zion bihotza, indarrez, azkenekoak izateak ematen zion boterearekin. Doi,

349

350

xuabatasunez ia, eskua luzatu zuen. Soka bat ukitu zuen instantera. Gero beste bat. Eta aurreneko bi haiek in zutitu zenean, hirugarrena.

- Gorputzean zeuzkan zauriek deiadarka jarri izango zuten beste edozein egoeratan. Ordea, sufrimendu latzagoa, haundiena, zeukan zai hilotz hartan gelditzera, eta, ezpainak hertsiz, pitzaduraren sarrera bila abiatu zen. Bizkarrak orma izotzuan ezarrit, ondo zeukan hanka bakarrarekin, bi besoekin tiraka, hamar bat metro igo zituen berari ordubeteko egin zitzaion tartean. Esperantzak hutsetik ateratako indarrak ematen zizkion.
- Beste hamar bat metro eginak zituenean, elur mordo bat erori zitzaion gainera burrunban, eta, desorekatuz, ormatik ateratzen zen ertz baterantz bidali zuen. Philippe
15 Augustek ertz hura sentitu zuen bere saihetsean sartzen, eta ezarria, orduan bai, garrasi batez pitzatu zitzaion. Eta garrasiari, oinazea zerbait arindu zitzaionean, nigarrak segitu zion, eta egiten ari zenari buruzko etsipenak. Pitzaduraren hondorantz begira, agian heriotza ezti bat kome-
20 ni zitzaiola pentsatu zuen. Ordea esperantza han zegoen artean, bere bihotzaren, eta egoera gaiztoenean ere adorea ematen digun *beharbada* hori murriztzen zion. Azken batean, uste gabeko suete batekin zebilen. Ez zeukan dudarako eskubiderik. Gainera, eroritako elurrak iterearen hurbiltasuna adierazten zuen.
- 25 Iduri izan zuen halabeharrak proba hura jarri nahi izan ziola saria eskaini aurretik. Zeren, orduerdi bat geroago, pitzaduraren ormak aurrea gris eta gero txuri jartzen zirela ikusi baitzuen.
- 30 'Argia,' pentsatu zuen. Eta, hain zuzen ere, egunsentia zen. Egun berri bat hastera zihoan Nepal deitzen zaion munduaren aldean.
- Eguzkiak milaka briztada ateratzen zizkion elurrari, elurra kristalezkoa izan bailitzan. Pitzaduratik goi aldera,

Lhotse erraldoiaren arkitzak ikus zitezkeen, eta Makalurenak haren ondoan. Pitzaduratik behe aldera, berriz, haren izotzua zegoen, Lehen Kanpamendurako bidea, salbazioa, bizitzia.

- Philippe Augustek goizeko aire garbia hartu zuen, eta bere birrikak berpiztu egiten zirela sentitu zuen. Eta Mendiari eskerrak emateko bezala, besoak zabaldu zituen haunditasun haren aurrean, eta begiak altza zeru urdinerantz. Lila bat izan zen.
- 10 Hala zegoela, inudipen berezi bat izan zuen. Iruditu zitzaion zabalduetako bere bi beso haiek beragana biltzen zirela ostera; eta beso haiek, berak nahi gabe, inguratu egiten zutelak, eta besarkatu. Baina, norik besarkatzen zuen?
- 15 Zer gertatzen ari ote zen jakiteko, begiak jaitsi zituen, eta aurrera zuzendu. Eta orduan izututa gelditu zen, burura etortzen zitzaizkion hitzak esan ezinez; zeren Mathias Reinzen begiratu burlosoarekin egokitu baitzen.
- 20 'Oso gaizki zegok Mendiari tranpa egitea, Phil,' entzun zuen bultzadarekin batera. Eta instant batez, pitzaduraren beheara eroriz zihola, bere bizitzako azken ordu haien zentzua ulertu zuen. Guztia — bisita, sokak uztearena, igorera — ez zela izan aldeaz aurretik sumatutako azken torturamendua baino; Mathiasék ez ziola esperantzaren oinazea ere barkatu izan nahi.

Bernardo Atxaga (1988) Obabakoak. Donostia: Erein. Beren baimenarekin.

351

- a. Irakasleak arbelean idatzi behar du narrazioaren titulua, "Pitzadura bat elur izoztuan", eta istorioak zer dioen asmatzen saiatzeko eskatu ikasleei. Ikus irakasleak eztabaida suspertzeko egin ditzakeen galdera eragingarriak (.1). (Denbora: 5 bat minutu.)
- b. Hiru edo launa ikasleko taldetan banatzen du irakasleak taldea eta guk emandako pasartea (.2) idazten du arbelean. (Denbora: 10 minutu gutxi gorabehera.)

.1

Irakaslearen galdera eragingarriak (ahoz egitekoak)

- Zein eratak da narrazioa? (Erromantikoa, beldurrezkoa, poliziakoa, abenturazkoa, zientzia-fikziozkoa...)
- Non gertatzen da?
- Zer egingo dute protagonistek? (Eskiatu, eskalatu, bazterrak miatu, kanpatu...)
- Nolako eguraldia dago? Ba al du horrek garrantzirik istorioan?
- Zer egiteko du, zure ustez, pitzadurak istorio horretan?

Ikasleek pasartea irakurri beharko dute eta aurreko ariketan azaldu-tako ideiarekin bat edo batzuk bermatzen edo aldatzen dituen eztabai-datuko dute. Gero hurrengo galderak (.3) izango dituzte hizketagai. Irakasleak irudimena erabiltzera bultzatuko ditu.

.2

"Ezin huen herorrek atera Tamng?" galdetu zion sherpari. Bere hitzak sei mila metrotako haizearen intziriarekin nahastu ziren.

Sherpak ezetz egin zuen buruarekin.

"Chiiso, Mister Reimz".

Erantzunaren ondorengo ixilunea hasierakoa baino etsiagoa izan zen oraindik. Tamng-en arrazoa tajuzkoa zen, inork ezin zezakeen dudatan jarri. Hozta, gauez, latzegia zen Lhotse ingurutako haranetan. (Atxaga, 1988: 345)

- c. Behin talde txikitan aurreko galdera horiek eztabaidatuz gero, ikasleak beren erantzunak talde osoko ikaskideekin partekatzen gonbidatuko dira. Ondoren istorioaren lehen zatia irakurtzen dute (345-347,5) azken hau dakarren parrafoa arte:

"Inork ez zuen egia errezelatu. Inori ez zitzaion bururatu erabaki ha-ren oinarrian gorrotoa egon zitekeela." (Atxaga, 1988: 347)

Hau bukatu ondoren, ikasleei talde osoan eztabaidatzeko astia eman behar zaie, beren iritziak berrikus ditzaten, horretarako lehen egin-dako galderek (.3) lagunduko dietelarik. (Denbora: 10 bat minutu.)

- 1 Orain garbiago ikusten al duzu istorioa non gertatu zen?
- 2 Nolakoa da eguraldia? Egunaren zein une da?
- 3 Zer gertatu da?
- 4 Zein da zure iritziz istorioko gertaera nagusia?
- 5 Zenbat protagonista nagusi izango dira? Eta nolakoa dela uste duzu horien arteko harremana?

II. Aldia:
Istorioa ustiratzeko
moduak

a. Istorioa kontatu

Irakasleak hiru taldetxotan banatuko ditu ikasleak (**A, B, C** taldeak). Istorioaren pasarte bana emango zaie taldeei, bakoitzari berea eta desberdina irakur dezaten (ikus **.4**).

Talde bakoitzak bere pasartea irakurri behar du eta zati hori bere hitz propioz kontatzeko prestatu. Irakurritakoa laburbiltzen lagunduko dieten 10-15 hitz-gakoen zerrendatxoa egin behar dute.

Ondoren, irakasleak talde berriak egingo ditu gutxienez **A** taldetik ikasle bat, **B**tik beste bat eta **C**tik beste bat aukeratuz. Orain ikasleek ahoz laburbildu beharko dute lehen irakurri duten zatia arestian jaso dituzten hitz-gakoen laguntzaz. (Denbora: 30 minutu gutxi gorabehera.)

b. Ulermen-froga

Behin aurreko ariketa bukatu ondoren, une horretara arte istorioari buruz esan dena oro har ulertua behar lukete eduki. Alabaina irakasleak zenbat ulertu duten jakin nahiko du agian eta, horretarako, ikasleei *egia/faltsua* erako galdera-zerrenda bat jarri diezaieke.

c. Irakurri eta marraztu

Lan horretarako, berriro ere ikasleak taldetxotan banatu beharko dira eta "Iluntasunari begira, Mathiasen erabilitako sokak etorri zitzaizkion gogora" (350,28) hasten den pasartea irakurriko dute (350,28-351,29), honela bukatzen dena: "Zeren, orduerdi bat geroago, pitzaduraren ormak aurrena gris eta gero txuri jartzen zirela ikusi baitzuen." (351,29).

Bere buruarekin, pasartean azaltzen dena marrazteko bezainbateko konfidantza duen ikaskide bat aukeratuko dute ikasleek. Denek hartu behar dute ekintza horretan parte, batzuek eta besteek eszena nola irudikatzen duten azalduz.

.4:
Pasarteak

A taldea

Irakurri 347,6-348,3 pasartea: "Philippe Auguste Bloy-ri min egiten zioten hautsita zeukan hankak eta..." (347,6) hasi eta "Sufritzen ari den gizon baten aurrean hagoela pentsatu behar duk." (348,3) bukatzen den pasartea.

B taldea

Irakurri 348,4-349,7 pasartea: "Pitzaduraren bakardadea areagotu zuen ixilu-nea egin zuten bi gizonen." (348,4) hasi eta "Mathiasi zakur eztula zirudien barrerxa bat atera zitzaion erantzunarekin batera." (349,7) bukatzen den pasartea.

C taldea

Irakurri 349,8-350,27 pasartea: "Erotuta bezala gelditu ninduan jende batek zuen erretratoak erakutsi zizkidanean, Phil." (349,8) hasi eta "Lo hartuko zuen une batetik bestera. Eta huraxe izango zen azkena." (350,27) bukatzen den pasartea.

Lan hau bukatu ondoren, egindako marrazkiak ikusi eta emaitzak eztabaidatzeko astia eman behar zaie taldeei. (Denbora: 15-20 minutu gutxi gorabehera.)

III. Aldia. Istorioaren amaiera bizitu

Irakasleak bi aukera dauzka eskura ikasaioaren azken aldi honetan istorioa bukatzeko, berari derizkion eran erabakiko duelarik.

1 Izan zaitez autore

Honez gero orain arte kontatutako istorioa ulertua dute, eta irakasleak amaiera idazteko eskatuko die. Etxeko lana izan daiteke hori, baina emaitzak talde osoarekin partekatu beharko lirateke, ikaskideen aurrean ozenki irakurriz edo ahoz laburpena eginez.

.5:
"Storyboard" a

'Oso 1 _____ 2 _____ 3 _____ 4 _____ 5 _____,
Phil,' 6 _____ 7 _____ 8 _____ 9 _____ 10 _____ 11 _____ 12 _____,
13 _____ 14 _____ 15 _____ zihola, 16 _____ 17 _____ 18 _____
19 _____ 20 _____ 21 _____ 22 _____ 23 _____ 24 _____ -25 _____,
26 _____ 27 _____, 28 _____ - 29 _____ 30 _____ 31 _____ 32 _____
33 _____ 34 _____ 35 _____ 36 _____ 37 _____; 38 _____
39 _____ 40 _____ 41 _____ 42 _____ 43 _____ 44 _____
45 _____ nahi.

2 Izan zaitez ia-ia autore

Lan honetarako, "storyboard" du izena, ikasleek istorioaren azken zatia irakurri behar dute (351,30: "'Argia', pentsatu zuen. Eta, hain zuzen ere, egunsentia zen. Egun berri bat hastera zihoan Nepal deitzen zaion munduaren aldean."), azken parrafoa ezik (352, 19: "'Oso gaizki zegok Mendiari tranpa egitea, Phil',..."). Irakasleak, bere aldetik, .5ekoaren antzeko "storyboard" bat prestatzen du. Zenbakia duten guneetako bakoitza azken parrafoko hitz bati dagokio. Eta, ikusten denez, hitz batzuk beren lekuan daude eta puntuazioa zorrotz errespetatu da. (Denbora: 20-30 minutu gutxi gorabehera.)

Gero “storyboard”aren kopia bana emango zaie ikasleei eta falta diren hitzak asmatu beharko dituzte. Irakasleak errez begira diezaioke bere hitz-gakoen zerrendari (.6) (hitzak ordena alfabetikoan daude beren zenbakiekin, parrafoan non dauden argi azaltzeko), eta horrela egiaztatu du esandako hitzak zuzen ala oker dauden. Zuzenak badira, non azaltzen diren esan behar zaie ikasleei (hitzak jarri behar dituzten lekuen edo lekuen zenbakiak ematea aski da) dagozkien hutsuneetan idatz ditzaten. Esaterako:

Ikaslea: “zuen.”

Irakaslea: “Bai, 7 eta 23 hutsarteetan azaltzen da.”

Lan hau egiteko, istorioari buruz dakitenaz eta nola bukatuko den aurrikusi dutenaz eta gramatikako ezagutzez baliatuko dira ikasleak.

Ekintza hau burututakoan, parrafoa osorik irakur dezakete ikasleek.

Gauzak esan den bezala egin ordez, irakasleak gardenki batean idatz dezake “storyboard”a. Oraingoan, ikasleek asmatu ahala berak idatziko ditu hitzak dagozkien lekuetan.

.6:
*Irakaslearen hitz-
-gakoen zerrenda*

aldez: 32	bultzadarekin: 8	haien: 20	sumatutako: 34
aurretik: 33	egitea: 5	igoera: 28	torturamendua: 36
azken: 18, 35	entzun: 6	instant: 11	tranpa: 4
baino: 37	ere: 43	izan: 31, 45	ulertu: 22
barkatu: 44	eroriz: 15	Mathiasen: 38	uztearena: 27
batera: 9	esperantzaren: 41	mendiari: 3	zegok: 2
batez: 12	eta: 10	oinazea: 42	zela: 30
behera: 14	ez: 29, 39	ordu: 19	zentzua: 21
bere: 16	gaizki: 1	pitzaduran: 13	ziola: 40
bisita: 25	guztia: 24	sokak: 26	zuen: 7, 23
bizitzako: 17			

Oharra

- * **Bernardo Atxaga** (1988) *Obabakoak*. Donostia: Erein. Beren baimenarekin.